

Gauzen Internet 10 langile edo gehiago dituzten enpresen % 30,1ean erabiltzen da Euskal AEn 2024an

Euskadiko enpresetan lan egiten duten pertsonen % 11,0 telelanean ari da 2024an, 2023an baino 5 hamarren gehiago

Gauzen Internet 10 langile edo gehiago dituzten enpresen % 30,1ean erabiltzen da Euskal AEn 2024an, Eustaten datuen arabera.

Hala ere, aztertzen diren bederatzi adierazleen artean, 4.0 Industria deiturikoaren adierazlerik aipagarriena komunikabide sozialak enpresa-helburuetarako erabiltzea da, % 76,5ek erabiltzen baitituzte, azken sei urteetan % 15,9ko hazkundera izan ondoren.

Jarraian leudeke ordainpeko hodeiko zerbitzu informatikoak (Cloud Computing), establezimenduen % 57,3k ordaintzen baitute ostatatze hori, horri esker enpresa baten informaziorako edo zerbitzuetarako sarbidea ahalbidetuz, edozein lekutan kokatutako edozein gailu mugikor edo finkotatik Interneterako konexio baten bidez, eta 2019an % 66tik abiatzen zen. Hirugarren lekuan zibersegurtasun-jarduerak daude, 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduen % 54,1ek erabiltzen dituzte, eta ehunekoa orain dela sei urtekoa baino % 26,4 handiagoa da.

Gainera, % 10etik % 30era bitarteko ehunekotan daude bezeroentzako aplikazio mugikorak (% 28,2), Big Data analisia % 26,0ra iristen da, adimen artifiziala % 12,2ra, robotika % 11,5era eta 3D inprimaketak % 10,4ra.

Establezimenduen gutzizkoaren kasuan, hamar langile baino gutxiago dituztenak barne, ehuneko horiek nabarmen txikiagoak dira, bereziki gizarte-komunikabideen erabilerari eta ordainpeko hodeiko zerbitzu informatikoen erabilerari dagokienez, % 53,8 eta % 37,1 egiten baitute behera, hurrenez hurren, neurri horretako establezimenduetan. Azken ehuneko horretatik nahiko hurbil daude zibersegurtasuneko jarduerak (% 25,4).

Euskal AEko establezimenduetako 4.0 Industriaren adierazleak, enplegu-geruzaren arabera. 2024



	Establezimendu guztiak	10 langile edo gehiagoko establezimenduak
Gizarte-komunikabideen erabiltzea enpresa-helburuetarako	53,8	76,5
Zerbitzu informatikoen erabilera ordaintzeko "hodeian"	31,7	57,3
Enpresako aplikazio mugikorren erabilera	15,1	28,2
Gauzen interneten erabilera (IoT)	13,7	30,1
Zibersegurtasuneko jarduerak	25,4	54,1
Makrodatuen analisia (Big Data)	12,5	26,0
Adimen artifizialeko sistemen erabilera	7,4	12,2
3D inprimagailuen erabilera	2,9	10,4
Robotikaren erabilera	2,6	11,5

Data 2024ko Uztailaren 12a


Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Euskal AEko establezimenduen % 53,8k erabiltzen dituzte gizarte-komunikabideak enpresa-helburuetarako

Euskal AEko establezimenduen % 53,8k erabiltzen dituzte gizarte-komunikabideak enpresa-helburuetarako, eta sare sozialetan (% 48,6), enpresa-blogetan (% 18,4) eta multimedia-edukiak partekatzeke webguneetan (% 29,9) parte hartzen dute.

% 53,8 hori % 76,5era igotzen da 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduetan, eta sare sozialetako parte-hartzea % 68,9koa da, enpresa-blogetakoa % 34,1ekoa eta edukiak partekatzeke webguneetakoa % 52,4koa establezimendu-tamaina horretan.

Euskal AEko establezimenduetako gizarte-komunikabideak, enplegu-geruzaren arabera (%). 2024



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Ordainpeko hodeiko zerbitzu informatikoak (cloud computing) 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduen erdiak baino gehiagok, % 57,3k, erabiltzen dituzte.

10 langile edo gehiago dituzten establezimenduen % 57,3k erabiltzen dituzten ordainpeko hodeiko zerbitzu informatikoen (cloud computing) artean, honako hauek nabarmentzen dira: posta elektronikoa (hodeiko zerbitzu informatiko gisa), % 49,0k; fitxategiak biltegitratzea, % 44,6k; eta ofimatikako programak (testu-prozesadoreak edo kalkulu-orriak), % 43,7k. Ondoren, % 30etik gorako ehunekoa dutelako aipa daitezke segurtasun-aplikazioak (birusen aurkako programak edo sarerako sarbidearen kontrolekoak), % 37,7; enpresaren datu-baseak ostatatzea, % 37,4; eta enpresaren erreminta informatikoen funtzionamendurako gaitasun informatikoa, % 31,0.

Euskal AEko 10 langile edo gehiagoko establezimenduetako ordainpeko "hodeiko" zerbitzu informatikoak, jarduera-adarraren arabera (%). 2024



	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Ordainpeko "hodeiko" zerbitzu informatikoak.	57,3	55,4	43,4	59,0
Posta elektronikoa (hodeiko zerbitzu gisa)	49,0	46,2	34,5	51,0
Ofimatikako programak (testu-prozesadoreak edo kalkulu-orriak)	43,7	37,3	32,3	46,5
Finantza- edo kontabilitate-kudeaketako aplikazioak	28,4	27,3	17,4	29,6
Enpresa-baliabideak planifikatzeko aplikazioak (ERP)	25,1	26,0	15,6	25,6
Bezeroekiko harremanak kudeatzeko aplikazioak (CRM)	27,6	16,8	15,9	31,6
Segurtasun-aplikazioak (birusen aurkako programa edo sarerako sarbidearen kontrola)	37,7	37,1	37,2	38,0
Enpresaren datu-baseak ostatatzea	37,4	33,9	25,7	39,4
Fitxategiak biltegitratzea	44,6	41,3	25,5	47,1
Enpresaren softwarearen funtzionamendurako gaitasun informatikoa	31,0	25,7	18,6	33,5
Aplikazioak garatzeko, saiakuntzak egiteko eta hedatzeko plataforma	21,5	11,7	22,8	24,2

Data 2024ko Uztailaren 12a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Big Data 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduen % 26,0k erabiltzen dute 2024an

Big Data, makrodatuen analisisia, 10 langile edo gehiago dituzten establezimenduen % 26,0k erabiltzen dute. Zerbitzuen sektoreko establezimenduak nabarmentzen dira, industria-establezimenduek (% 16,2) eta eraikuntzakoek (% 26,9) baino gehiago erabiltzen baitute (% 28,8).

Aztertutako datuen artean, eragiketen erregistroetatik datozen datuak (salmenten xehetasunak, ordainketen erregistroak) nabarmentzen dira (% 17,8), eta, ondoren, bezeroei buruzko datuak (erosketei buruzko informazioa, kokapena, lehentasuna, etab.), % 15,8. Jarraian daude webgunean lortutako datuak (% 12,4), gailu eramangarrietatik edo ibilgailuetako gailuetatik datozenak (% 9,0) eta sare sozialetan lortutakoak (% 8,8).

Euskal AEko 10 langile edo gehiagoko establezimenduetako makrodatuen analisia (Big Data) jarduera-adarraren arabera (%). 2024



	Guztira	Industria	Eraikuntza	Zerbitzuak
Makrodatuen analisia (Big Data)	26,0	16,2	26,9	28,8
Eragiketen erregistroen datuak, hala nola salmenten xehetasunak, ordainketen erregistroak	17,8	12,7	16,9	19,4
Bezeroen datuak (erosketei buruzko informazioa, kokapena, lehentasunak, aipamenak edo bilaketak)	15,8	9,0	14,9	17,8
Sare sozialetako datuak, enpresaren sare sozialetako profilak barne	8,8	3,2	0,0	11,2
Webgunearen datuak (bilaketa-motorren joerak, web-orriak karrakatzea)	12,4	4,1	0,0	15,8
Gailu eramangarrien edo ibilgailuen erabileratik datozen lokalizazio-datuak	9,0	3,7	18,9	9,7
Gailu edo sentsore adimendunetatik datozen datuak	8,6	7,7	10,5	8,7
Agintari publikoen datu irekiak (erregistro publikoak, meteorologia, garraioa, etxebizitza...)	7,9	1,7	8,3	9,7
Satelite bidezko datuak (GPS bidezko lokalizazio-datuak izan ezik)	2,1	0,9	0,0	2,6

Data 2024ko Uztailaren 12a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Euskadiko enpresetan lan egiten duten pertsonen % 11,0 telelanean ari dira 2024an.

2024an, Euskadiko enpresetako langileen % 11,0k lantokitik kanpo lan egin dute erregulartasunez lanaldiaren erdia gutxienez, eta sare telematikoak erabiltzen dituzte Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietako (IKT) sistemekin konektatzeko. Hori dela eta, telelangiletzat har daitezke. Zifra hori aurreko urtean erregistratutakoa baino (% 10,6) 6 hamarren handiagoa da.

Gainera, batez beste, langileen % 79,5ek erabiltzen dituzte Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietako (IKT) sistemak, eta, egiaztatu denez, % 10,7 espezialistak dira IKT sistemetan. Era berean, % 43,2k urruneko konexioa dute erabilera profesionalerako gailu eramangarri baten bidez.

Langile horiek sexuaren arabera aztertuta, nabarmendu behar da IKT sistemetako espezialisten kasuan izan ezik, kasu horretan gizonen ehunekoak % 65,9koa eta emakumeena % 34,1ekoa baita, aipatutako gainerako kategorietan ehunekoak oso antzekoak direla, % 50 ingurukoak.

Euskal AEko establezimenduetako IKT enplegatuak, lurralde historikoaren eta jarduera-adarraren arabera (%). 2024

	IKT erabiltzaileak			IKT espezialistak			Urruneko konexioa duten langileak			Telelangileak		
	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Euskal AE	79,5	49,8	50,2	10,7	34,1	65,9	43,2	48,1	51,9	11,0	49,8	50,2
Araba/Álava	78,3	49,9	50,1	8,7	34,0	66,0	37,4	48,0	52,0	8,8	54,4	45,6
Bizkaia	78,9	50,3	49,7	11,5	34,0	66,0	44,7	48,9	51,1	11,9	49,1	50,9
Gipuzkoa	81,1	49,0	51,0	10,7	34,2	65,8	43,8	46,8	53,2	10,7	48,5	51,5
Jarduera-adarra												
Industria	71,0	30,7	69,3	4,5	22,5	77,5	38,3	31,3	68,7	10,4	38,4	61,6
Eraikuntza	63,0	27,7	72,3	6,9	34,4	65,6	48,6	32,7	67,3	7,8	40,7	59,3
Zerbitzuak	83,1	56,8	43,2	12,7	37,6	62,4	44,2	54,2	45,8	11,4	54,8	45,2

Data 2024ko Uztailaren 12a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Euskadiko enpresak eskuragarritasun maximora iritsi dira IKT ekipamenduetan

Euskadiko enpresen Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietako (IKT) ekipamenduei dagokienez, adierazi behar da gero eta hobeto prestatuta daudela eta teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen ehunekoak ere handiagoa dela. Gaur egun establezimenduen % 96,3k dute ordenagailua, % 96,0k dute Interneterako sarbidea eta enpresen erdiak baino gehiagok, % 57,4k, du webgunea.

10 langile edo gehiagoko establezimenduetan ekipamenduei buruzko ehuneko horiek maximora iristen dira. Horrela, % 99,4k dute ordenagailua, ehuneko berberak, hau da, % 99,4k dute Interneterako sarbidea eta % 92,5ek dute webgunea. Establezimendu txikiaren kasuan ez bezala, jada ez dute hazkunderako tarterik.

Euskal AEko establezimenduetako informazioaren teknologien ekipamenduak, lurralde historikoaren eta enplegu-geruzaren arabera. 2024



	Ordenagailu pertsonala		Internet		Webgunea
	% establ. ald	% enplegu. ald	% establ. ald	% enplegu. ald	% establ. ald
Euskal AE	96,3	77,5	96,0	74,9	57,4
Araba/Álava	96,8	74,6	96,8	70,3	55,2
Bizkaia	95,5	77,3	94,9	75,6	57,3
Gipuzkoa	97,2	79,4	97,4	76,0	58,4
Enplegu-geruzak					
Otik 9ra	96,0	80,6	95,7	81,0	53,8
10 eta gehiagokoak	99,4	76,2	99,4	72,1	92,5

Data 2024ko Uztailaren 12a

Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak

Teknologia horiek erabiltzen dituzten langileen ehunekoari dagokionez, lanean ari direnen % 77,5ek erabiltzen dute ordenagailua eta % 74,9k dute Interneterako sarbidea.

Segurtasun informatikoa oso hedatuta dago EAEko enpresetan

Bestalde, enpresen % 92,0k dute segurtasun informatikoko neurriren bat. Neurri horien artean nabarmentzen dira, % 30etik gora, software eguneratua izatea (% 89,4), pasahitz seguruak erabiltzea (% 86,3), kanpoko backup-ak erabiltzea (% 67,1), sarerako sarbidearen kontrola (% 44,6), datuak zifratzea (% 37,0) eta VPN sare pribatu birtuala erabiltzea (% 30,9). 10 langile edo gehiago dituzten enpresen kasuan, ehuneko horiek guztiak handiagoak dira, eta ia establezimendu guztiek dute (% 98,3k) segurtasun informatikoko neurriren bat.

Euskal AEko enpresa guztien % 57,3k –10 langile edo gehiago dituzten enpresen % 92,5ek– presentzia dute Interneten web-orriaren bidez

Enpresek gero eta garrantzi handiagoa ematen diote Interneten web-orri baten bidez agertzeari. Horrela, azken urtean, sarean daudenak guztizkoaren % 57,4 dira, eta 10 langile edo gehiago dituzten enpresen artean ehuneko hori % 92,5era igotzen da.


Web-orri horietan enpresari buruzko informazio orokorra, eskaintzen dituen produktuen eta zerbitzuen katalogoa, informazioaren pribatutasun-adierazpena, enplegu-eskaintzak eta saldu ondorengo zerbitzuak aurkitu daitezke, besteak beste.

Eskuragarri dauden hizkuntzei dagokienez gaztelania nabarmentzen da kasuen % 98,8rekin, eta ondoren daude euskara (% 42,1), ingelesa (% 27,9) eta beste hizkuntza batzuk (% 12,9).

10 langile edo gehiago dituzten euskal enpresetan Interneterako sarbidea eta webgunea izatea EB-27ko batez bestekoa baino handiagoa da

Nazioartean, EB-27rekin behar bezala alderatzeko, 10 langile edo gehiago dituzten enpresen datuak eta Eurostatek biltzen dituen jarduerak (ez dituzte kontuan hartzen finantza-sektorea, administrazio publiko eta abar) erabili behar dira. Gainera, kontuan izan behar da Eurostatek informazio eguneratuagoa duen arren, orain argitaratu denaren aurreko informazioa erabili behar dela, 2023koa. Urte horretan ezaugarri horiek zituzten euskal enpresek EB-27ko batez bestekoa (% 78,1) baino ehuneko handiagoak lortu zituzten web-orria zuten enpresen ehunekoan. Eta komunikabide sozialak erabiltzeari dagokionez ere, Euskal AEko enpresetan erabilpen hori % 68,7koa zen eta EB-27ko batez bestekoa % 60,9koa zen.

10 langile edo gehiagoko establezimenduak, webgunearen eta gizarte-komunikabideen erabilera araberako herrialdeak (%). 2023ko urtarila



Iturria: Eustat. Informazioaren gizartearen inkesta. Enpresak eta EUROSTAT. 2023

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie estatistika hau egiten lagundu duten enpresa eta erakunde guztiei. Informazio bilketa 2024ko urtarriletik maiatzera bitartean egin da, eta erantzun-tasa % 84,7koa izan da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa Zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62